



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde

## ESKUALDE BILETARAKO INFORMAZIOA / 2017ko maiatza

### 1.-3 hitzaldi antolatuko ditugu, eskola janglei buruzko azterketaren berri eta esperientzia pilotuei buruzko informazioa emateko.

“GURE PLATERA GURE AUKERA” plataformak eskola komunitateek, lehen sektoreak eta gizarteak, oro har, eskola jangelen gaur egungo eredu aldatzeko ikusitako premiari erantzuteko xedez sorturiko ekimen bat da; haren aitzindariak VSF –Justicia Alimentaria Global– erakundea eta EHIGE-Euskal Eskola Publikoko Gurasoen Konfederazioa dira. Plataforma horrek azken urteetan aurrera eramandako ekimenen artean, bereziki aipatzekoa da LAIA Ekosormena Elkartearekin lankidetzan egindako ikastetxe publikoetako jangelen egoerari buruzko azterketa. Era berean, eskola jangelen autogestiorako esperientzia pilotuak abian jarri ditu, Hezkuntza Sailaren onespenez, Bizkaiko bi ikastetxe publikotan (Markinako Bekonbenta, eta Gernikako Allende-Salazar).

Interesgarria iruditu zaizu ekimen horien berri emateko kanpaina bat egitea, eta, ildo horretatik, hiru hitzaldi antolatu ditugu maiatzerako, ikerketa horren datuak eta ondorioak azaltzeko. Horrekin batera, esperientzia pilotuak indarrean jarri dituzten jangelen ardura duten IGEek beren esperientziaren berri emango dute.

Hona hemen hitzaldien xehetasunak:

- Maiatzak 22, astelehena, BERGARAN. Ordua: 18:00etan, Tokia: San Martin de Agirre eskolan (Boni Laskurain kalea 25, BERGARA)
- Maiatzak 25, osteguna, DONOSTIAN. Ordua: 18:00etan, Tokia: Amaraberri eskolan – Morlans eraikuntzan (Morlans pasealekua, DONOSTIA)
- Ekainak 13, asteartea, ZARAUTZ, Emaus eta Lakari dendarekin elkarlanean. Ordua: 18:00 etan, Tokia: Lakari dendan (Araba kalea 33, ZARAUTZ)

### 2.-Elkarteen administrazio publikoarekin harremana izateko betebeharrari buruzko informazioa.

Orain aste batzuk sartu zen indarrean Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, non ezartzen baita pertsona juridikoek –eta sail horretan sartuta daude IGEak– betebeharra dutela administrazio publikoekin modu elektronikoa harremana izateko; hau da, Lege horren arabera, administrazio publikoaren aurrean eskariak egiteko, ezingo dira eskari horiek paperean aurkeztu, orain arte bezala, baizik eta administrazio publiko bakoitzaren egoitza elektronikoa bidez. Hori dela eta, edozein administrazioerikiko (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, udalak, Elkarteen Erregistroa, etab.) prozedurak izapidetzeko, administrazio bakoitzak onartutako identifikazio bideren bat erabili beharko dute elkarteen.

Horrek aldaketa handia ekarriko du IGEen administrazio lanari dagokionez; zehazki, IGEaren jarduerari loturiko administrazio lanari dagokionez, adibidez, diru laguntzak eskatzea eta justifikatzea, Elkarteen Erregistroko izapideak, etab.

Federazioa ohartzen da aldaketa horiek gorabehera handiak ekar diezazkietela IGEei; izan ere, identifikazio elektronikoa IGEaren legezko ordezkariarekin lotuta dagoenez eta eguneratu egin behar denez Elkarteen lehendakaritza aldatzen den oro, nahiko konplikatu gerta daiteke.

Hori dela eta, BAIKARA aztertzen ari da IGEentzat irtenbide errazena zein den. Antzeko egoera sortu zitzaigun Gipuzkoako Foru Aldundiak zergak aurkezteko bide telematikoa erabiltzeko betebeharra indarrean jarri zuenean. Kasu hartan, lortu genuen IGEen zerga ordezkariak BAIKARAREN esku utzi ahal izatea, eta, hala, gaur egun, zergen aitortpenak Federazioak aurkeztu ditu IGEen izenean.

eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde

Legezko ordezkartzari dagokionez, oraingoz, IGEek Elkartearen Erregistroan egin beharreko izapideak (nagusiki, Zuzendaritza Batzordearen aldaketak) bide telematikotik aurkez daitezke, Federazioaren identifikazio elektronikoa erabilia, baina ez dakigu aurrerantzean berdin jarraitzerik izango dugun. Orain, gure kezka nagusia da zer gertatuko den diru laguntzen izapideekin; oraingoz, ez dugu inolako informaziorik Eusko Jaurlaritzak horretarako ezarriko duen prozedurari buruz.

### 3.-Diagnostikoko ebaluazioei buruzko informazioa

LOMCE indarrean jartzearekin batera, Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailetan diagnostikoko probak eta DBHko 4. mailan eta Batxilergoko 2. mailan amaierako probak egiteko betebeharra planteatzen da. Proba horiez gainera, aurrez indarrean jarrita zeuden Lehen Hezkuntzako 4. mailakoa eta DBHko 2. mailakoa ere. Azken bi proba horiek bi urtez behin egiten dira, eta 2016-2017an egin behar ziren. Proba horiek eta beren izaera nahitaezkotasuna direla eta, nahasmen handia sortu da ikastetxeetan. Hori dela eta, EHIGEK informazioa eskatu dio Hezkuntza Sailari, eta hau da hark emandako erantzuna:

- **Lehen Hezkuntzako 3. mailako proba:**

- Iaz bezalakoa da (hain zuzen, azterketak berdinak dira, ISEIri ez diolako astirik eman horiek aldatzeko; hortaz, ikastetxearentzat baliagarriak izan daitezke, konparazioak egiteko).
- Ikastetxeei igorritako informazioan ez da oso argi ikusten proba hori egitea borondatzekoa den edo ez.
- 3 aukera daude:  
ISEIk prestatutako probak aplikatzea.  
Ikastetxeak prestatzea probak, eta ISEIren aplikazioa erabiltzea ikastetxearentzako eta familientzako txostenak egiteko.  
Ikastetxeak prestatutako probak aplikatzea eta bere txostenak sortzea (ISEIren baliabideak erabili gabe).

\*Informazio gehiago: <http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/web/guest/lh3>

- **Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako probak:**

- 2 ikasturtez behin egiten dira.
- 2017ko martxoan egin ziren.
- Ikasturtea amaitu aurretik, lehen txostena hasierako dute ikastetxeek. Datorren ikasturteko lehen hiruhilekoan eskuratuko dute behin betiko txostena, eta ISEIk jarraipena egingo du, hobekuntza plana lantzeko.

\*Informazio gehiago: <http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/web/guest/evaluacion-diagnostica>

- **Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 4. mailako proba pilotuak:**

- Maiatzean egingo dira, Lehen Hezkuntzako 60 ikastetxetan eta Bigarren Hezkuntzako 30etan (publikoak eta probatuak).
- Item sorta bat prestatu da, ebaluatu nahi diren 5 gaitasunei buruzkoak.
- Heziberrin jasotako LOMCEko probak dira.
- Datorren ikasturtean erabakiko du Hezkuntza Sailak proba horiek ikasle guztiei egingo zaizkien, eta, azken batean, zer ebaluazio sistema eraiki nahi duen.

- **PISA proba pilotua:**

- Ikastetxe batzuk hasita daude PISA proba pilotua egiten, 2018an indarrean jarriko baita PISA (Irakurmena ebaluatuko du).
- Ikastetxe horiek ez dituzte egingo 6. eta 4. mailako proba pilotuak.

eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde

- Abenduaren erdialdera eman zituzten aditzera 2015eko PISA txostenaren emaitzak. 15 urteko ikasleei egiten zaie proba hori, eta, emaitzen lehen irakurketaren arabera, euskal ikasleek emaitza okerragoak izan zituzten 2012ko txosteneko emaitzekin alderatuta. Hona hemen txostenaren emaitza nagusiak, labur-labur adierazita:

- **Batxilergoko 2. maila:**

Batxilergoko 2. maila amaitzean, ikasleek ez dute amaierako inolako probarik egin behar Batxilergoko titulua eskuratzeko. Orain arte bezala, ikasleek Batxilergoko irakasgai guztiak gaituta eskuratuko dute titulua. Unibertsitatera sartzeko, sarbideko proba batekin behar dute ikasleek; proba horrek izen espezifikorik ez duen arren, "Unibertsitatera sartzeko ebaluazioa" esaten zaio, eta aurreko Hautaprobaren ordezko proba da.

## 4.-Euskal Eskola Publikoaren jaiak.

Euskal Eskola Publikoaren 2017ko jaiak herri hauetan egingo dira:

- **Euskal Eskola Publikoaren 26. Jaia:** ekainaren 4an, GASTEIZen. Jaiaren lema "JOSI TA JOSI" da, eta irudia, berriz, honako hau:

**Euskal Eskola Publikoaren 26. Jaia:** ekainaren 4an, GASTEIZen. Jaiaren lema "JOSI TA JOSI" da, eta irudia, berriz, honako hau:



**Eskola Txikien Festa:** ekainaren 11n, ARROAN. Ohi bezala, **ESKOLA TXIKIAK BIZIRIK** da lema, eta logoa, honako hau:





eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde

## 5.-INTERESEKO BESTE GAI BATZUK

### 5.1 Hezkuntza publikoko grebak

LAB, ELA eta STEILAS sindikatuek hezkuntza publikoko grebak antolatu dituzte maiatzaren 16rako eta 23rako; hain zuzen ere, hezkuntza publiko ez unibertsitarioko irakasle, heziketa bereziko hezitzaile, sukalde eta garbiketako langile nahiz Haurreskolak partzuergoko langileei egin diete grebarako deialdia.

Maiatzaren 20an, larunbatean, Autonomia Erkidegoan antolatutako hiru manifestazioetan parte har dezaten dei egingo diete langileekfamiliei eta herritarrei, oro har. **Donostiako manifestazioa 12:00etan izango da, KURSALETIK aterata..**

Hiru sindikatu horien aburuz, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritza azken urteetan ezartzen ari den hezkuntza politika erro-errotik aldatzea, murrizketak indargabetzea eta horrek guztiak hezkuntza publikoan eta haurreskoletan sortutako egoera konpontzea.

Hauk dira sindikatuen aldarrikapenak:

- Hezkuntza inbertsioa handitzea (gutxienez Europar Batasuneko batz-bestekoa progresiboki %6ra iritsiz).
- Plantilak gutxienez 2.000 langiletan handitzeko beharra.
- Batz-besteko ia %40ko behin-behinekotasuna (%38 irakasleetan, %57 Haurreskoletan, %58 Heziketa Berezian eta %63 Sukalde eta Garbiketetan), %6ra murrizteko premia. Horretarako 6.000tik gora lanpostu egonkortuz kolektibo ezberdinetan.
- Gelako ikasle kopurua %10 murriztea.
- Hezkuntzako langileen eroste ahalmena berreskuratzea.
- Ordezkapenak lehen egunetik egitea.
- Bajak lehen egunetik bere osotasunean ordaintzea.
- Erretiroa erraztu eta laguntzeko neurriak berreskuratzea.
- LOMCE Euskal Herriko gure ikastetxeetatik ateratzea eta honen moldaketa hutsa den Heziberri bertan behera uztea.
- Hezkuntzaren merkantilizazioa alde batera uztea, egungo desorekak gaindituz hezkuntza garapen pertsonal eta sozial integralerako tresna izan dadin (kohesio soziala, integrazioa, aniztasuna, berdintasuna, hezkidetzatza oinarri).
- Ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen euskarazko murgiltze eredia garatzea.
- Balizko Hezkuntza legearen aurrean sindikatu, hezkuntza eragile eta herritarron parte hartzea eta iritzia aintzakotzat hartzea.

Mahai sektorialaren bilerak huts egin zuenez, CCOO Irakaskuntzak ere grebarako deialdia egin du, maiatzaren 16rako; "EUSKAL HEZKUNTZAREN DEFENTSAN, MOBILIZA ZAITEZ!" izango da grebaren lema

Federazioari dagokionez, atxikimendua eta babesa ematen diegu aldarrikapen horiei, eta familiei dei egiten diegu hezkuntza zentroetan antolatuko diren kontzentrazio eta mobilizazioetan eta, batez ere, maiatzaren 20an Donostian egingo den manifestazioan parte har dezaten.